

Ordizian, **2012ko azaroaren 29an**, UDALBATZA elkartu da UDALETXEKO BILKURA-ARETOAN **OHIKO BILERA** egiteko. Bertan izan dira honako hauek:

**BERTARATUAK:**

**BATZORDEBURUA:** Igor Eguren Izagirre jauna.

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Eduarne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	EAJ taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	EAJ taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	EAJ taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	EAJ taldea
Bittor Bolinaga Alzelai jauna	EAJ taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

**BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :**

**IDAZKARIA:**

Martin Iparragirre Mujika jn.

**KONTUHARTZAILEA:**

Jose Luis Aramburu Otegi jauna

**ITZULTZAILEA:**

Izaskun Zubitur Iñarra andrea

**BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK**

## **EGUNEKO GAIAK**

### **EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:**

- 1.- 2012ko urriaren 24an egindako osoko bilkurako akta onartzea.  
.....**3.orr.**
- 2.- 2012ko urriaren 31n ezohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.  
.....**3.orr.**
- 3.- Frankismoaren Krimenen aurkako Kereilaren Euskal Plataformaren inguruan BILDUK aurkeztutako Adierazpena.  
.....**3.orr.**
- 4.- Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunari buruzko Adierazpena.  
.....**3.orr.**
- 5.- Ordiziako BILDUK Kaleratzeen inguruan aurkeztutako mozioa.  
.....**3.orr.**
- 6.- Ordiziako PSE-EE(PSOE)k Kaleratzeen inguruan aurkeztutako mozioa.  
.....**3.orr.**
- 7.- Ordiziako PSE-EE (PSOE)k “Zahartze aktiboaren eta belaunaldien arteko elkartasunaren Europako Urtea”ren inguruan aurkeztutako mozioa.  
.....**3.orr.**
- 8.- “Krisiaren aurkako plana” egiteko Ordiziako PSE-EE (PSOE)k aurkeztutako mozioa.  
.....**3.orr.**
- 9.- Sasieta Mankomunitateko aholkulariaren kontratazioaren inguruan Ordiziako PSE-EE (PSOE)k aurkeztutako mozioa.  
.....**3.orr.**
- 10.- 2012ko Aurrekontuetako Kreditu transferentzien espedientea onartzea.  
.....**3.orr.**
- 11.- (Upabi) 12 HIEko AASSen aldaketa.  
.....**16.orr.**

### **PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:**

#### **GORABEHERAK**

#### **GALDE-ESKEAK**

#### **ORDUTEGIA**

**HASIERA ORDUA: 19.00ak.**

**AMAIERA ORDUA: 20.30ak.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

**1.- 2012ko urriaren 24an egindako ohiko bileraren akta onartzea.**

Proposamena

**2012ko urriaren 24an ohiko deialdian egindako bileraren akta-zirriborroa onartzea.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez dira izan

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0.

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du.

**2.- 2012ko urriaren 31n ezohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

Proposamena

**2012ko urriaren 31an ezohiko deialdian egindako bileraren akta-zirriborroa onartzea.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez dira izan

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11 (BILDU 6, EAJ/PNV 4,PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 2 (Edurne Gutierrez and.(BILDU taldekoa) eta J.M.Santamaria Jn.(EAJ taldekoa) bilera honetan ez zirelako izan.

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 4. 5. eta 6.puntua gai zerrendatik ateratzea proposatu du honela arrazoituta:

4 puntua ez du zentzurik bozkatzera, zeren eta Osoko Bilkurako Gaien Batzordea egin eta gero alderdi guztiek adierazpen instituzional bezala adostuta dute.

5 eta 6 puntuen ordean, alderdi guztiek adostutako beste mozio berri bat aurkeztuko da.

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5,PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0.

**Alkate jaunak ondorioz, 4. 5. eta 6. puntuak gai-zerrendatik atera ditu.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hirugarren puntuaren berri eman du:

### **3.- Frankismoaren Krimenen aurkako Kereilaren Euskal Plataformaren inguruan BILDUk aurkeztutako Adierazpena.**

#### Proposamena

*Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak, idatzi honen beheko partean agertzen diren Elkarteez osatutakoa, egungo legediari jarraituz Ordiziako Udaletxearen Osoko Bilkurari proposatzen dio ondorengo Mozioaren onarpena.*

Ordizian, 2012.eko Azaroaren 16a

## ARRAZOIEN AZALPENA

1936.eko Uztailen Francok burututako altxamendu militar-faxistak Errepublikaren bidezko Gobernu eta Gobernu Autonomiko guztiak ezabatu zituen, industri, nekazal eta finantza oligarkiaren laguntzarekin, Elizaren agintari eta partaideek tarteko, eta erregimen politiko totalitario bat ezarri zuen askatasunaren, justizia sozialaren eta Estatuko Nazioen eta Herrien eskubideen aldeko pertsona ororen suntsitze fisikoa eraginaz.

Diktadura hura, ideologikoki “nacional-catolicismo” delakoaren zutabeetan finkatua, armadak, finantza eta industria oligarkiak, lur-jabeen klaseak eta Elizak hurrengoko berrogei urteetan mantendu zuten errepresio bortitza eta jeneralizatuaren bitartez edozein oposizio saihestuaz, torturak, “paseoak”, heriotza-zigorak, eta gainontzeko kondenak jarriaz erregimenaren aldeko epaileen bitartez, atxilotuak inongo defentsa aukerarik izan gabe.

Francoren heriotzaren ondoren, herriaren borrokek eta presio internazionalak frankistak behartu zituzten nolabaiteko aldaketa batzuk egitera, “trantsizio politikoa” delakoaren babesarekin, zeinek inpunitate guztia bermatzen zien 1977.eko Amnistia Legea medio. Prozedura guzti honetan botere politikoa, judiziala, ekonomikoa, militarra eta errepresiboa mantentzea lortu zuten, frankismoaren zutabe nagusienak bermatuz: Estatuaren batasuna, Kapitalismoaren jabetza eta lehentasuna edozein interes sozialetik gain, eta Elizaren estatus pribilegiatua.

“Trantsizio” horretako urteetan torturak eta erailketak jarraitu zuten poliziaren eta para-polizien esku, eta baita manifestazioen errepresio bortitzak ere, estatus hori mantentzeko asmoz. Egun, herrien autodeterminazioaren aurkako mantentzen den jarrera, Ibarretxeri, alderdi sozialistari eta ezker abertzaleko partaideei epaiketa saiakera ezaguna bezalakoa; erakunde politikoak legez-kanpo lagatzea; egunkari nahiz irratiaren itxierak; Entzutegi Nazionalaren epaiketa antzuak; eta abar luze batek zera adierazten du nabarmen: diktadoreak utzi zuen “lotua eta ondo lotua”k hor dirauela Borbon monarkiaren bitartez.

Baina “trantsizio” hartatik hogeita hamabost urte geroago argentinaren epaile batek frankismoaren aurkako kereila bat onartu du genozidio eta gizateriaren aurkako delituegatik, preskriba-ezinak eta inongo “azken puntuko legeak” amnistiatzerik ezin dituenak. Nahiz eta erakunde internazionaletik izan, kereila honek frankismoaren zutabeak zartatzen hasia du, hainbat memoriaren aldeko erakundeek urteetan zehar ahalegintzen ari garen bezala. Beraz, Egiaren, Justiziaren eta Erreparazioaren aldeko une garrantzitsu baten aurrean gaude, milaka eta milaka errepresaliatuen duintasuna lortzeko ahalmen berezia bilakatuaz.

Esandako guzti honegatik, *Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak*, *Altafaylla Kultur Taldea*, *CNT Euskal Herria*, *Durango 1936 Kultur Elkarte*, *Euskal Memoria Fundazioa*, *Eusko Lurra Fundazioa*, *Egiari Zor Fundazioa*, *Garraxika Taldea*, *Gernika Batzordea*, *Goldatu Elkarte*, *Intxorta 1937 Kultur Elkarte*, *Lau Haizetara Gogoan Elkarte*, *Martxoak 3 Elkarte*, *Oroituz eta Sare Antifaxista Elkarte*ek osatzen dutena, ondoko proposamena luzatzen dizue:

## MOZIOA

1.- Ordiziako Udalak 1931.ean bide onez burututako Errepublika eta Gobernu Espainol, Katalan, Galego eta Euskaldunaren aurka 1936.eko Uztailean Francok antolatutako altxamendu militar-faxista salatzen du.

2.- Ordiziako Udalak gerora ezarritako diktadura erregimena salatzen du, berrogei urteetan zehar eragindako triskantza odoltsuegatik justizia soziala aldarrikatzen zutenen aurka eta baita Katalunia, Galizia eta Euskal Herriaren eskubide nazionalak aldarrikatzen zutenen aurka.

3.- Ordiziako Udalak kolpe militar haren alde eta gerora bere gobernuen alde egin zuten industria, nekazal eta finantza oligarkiak eta Elizaren agintari eta partaideak salatzen ditu.

4.- Ordiziako Udalak 1977.eko Amnistia Legearen bidez, frankismoaren inpunitatea eragin zela salatzen du. Inongo garbiketarik egin ez zutelako botere esturketan, batez ere diktaduraren arlo juridiko eta errepresiboetan (armada, polizia eta guardia zibila).

5.- Ordiziako Udalak eta altxamendu militarragatik, erregimen frankistagatik eta Estatu terrorismoagatik errepresaliatuak izan zirenei bere eskubideak bermatzeko ahaleginetan ardura hartuko du, erregimen haren EGIA plazaratzen, bere oinordekoek egiten ari diren historiaren errelato faltsua salatuaz; JUZTIZIA aldarrikatzen, egungo inpunitatea saihestuaz eta frankisten erantzukizuna exijituaz; milaka eta milaka biktimentzat ERREPARAZIO duin eta diskriminazio gabea eskatzen; eta, azkenik, gizarteak behar dituen aldaketa sozio-ekonomikoak, juridikoak eta instituzionalak eragiten, ERREPIKA-EZINAREN BERMEA ezartzeko.

6.- Ildo honetan, Ordiziako Udalak bere laguntza eta atxikimendua ematen dio Argentinako Errepublikan, Buenos Aireseko 1 Epaitegian, 4591/10 Kereilari, zein Maria Servini de Cubria Epaileak daraman genozidioaren eta gizateriaren aurkako frankismoaren krimenegatik.

7.- Ordiziako Udalak hiritar orori eskatzen dio Kereila honen alde egin dezan, bai kereilatzaile gisa errepresiorik sufritu duenak, berak edo bere familiakoren batek; edo baita diktaduraren aurka bere salaketa eginaz eta atxikimendu pertsonala sinatuaz.

Udaletxeko Osoko Bilkurak deklaritzen duena 2012.eko azaroaren 29a.

Instituzio horretarako hautatuta dauden partaide guztiak animatzen ditugu Frankismoaren Aurkako Kanpaina eta Kereila honekin bat egin dezaten goiko Mozioa onartuaz.

### Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataforma

- Altafaylla Kultur Taldea. ([www.altafaylla.com](http://www.altafaylla.com))
- CNT Euskal Herria.
- Durango 1936 Kultur Elkarte.
- Euskal Memoria Fundazioa. ([www.euskalmemoria.com](http://www.euskalmemoria.com))
- Eusko Lurra Fundazioa.
- Egiari Zor Fundazioa. ([www.egiarizor.org](http://www.egiarizor.org))
- Garraxika Taldea. ([www.turrune.wordpress.com](http://www.turrune.wordpress.com))

- Gernika Batzordea. ([www.gernika2012.net](http://www.gernika2012.net))
- Goldatu Elkarte. ([www.goldatu.org](http://www.goldatu.org)) Oficina Virtual para la Querrela
- Intxorta 1937 Kultur Elkarte. ([www.intxorta.org](http://www.intxorta.org))
- Lau Haizetara Gogoan Elkarte. ([www.lau-haizetara-gogoan.blogspot.com](http://www.lau-haizetara-gogoan.blogspot.com))
- Martxoak 3 Elkarte. ([www.martxoak3.org](http://www.martxoak3.org))
- Oroituz Andoain 1936.
- Sare Antifaxista. ([sare.antifaxista@gmail.com](mailto:sare.antifaxista@gmail.com))

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jn

Alkate jaunak mozioaren zergatia azaldu eta adierazi du Frankismoaren Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak osatzen duten elkarteek bultzatutakoa dela, eta ondoren Adierazpenaren puntuak irakurri ditu.

#### Santamaria jn:

Bere alderdiak betidanik gaitzetsi eta gaitzesten jarraitzen duela altxamendu faxista, eta baita gogoratu du garai horretan bere alderdiak sufritu zuen persekuzioa. 1977ko-Amnistia Legea, aurreko erregimenaren bukaera izan zela eta marko berri bat sortu zuela transizioari hasiera eman eta demokrazia bultzatzeko, eta errepresio egoera hura bultzatu zutenekin oso generosoak izan zirela askatasunaren alde eta demokraziaren alde betidanik borrokatu zutenak. Jarraitu du esanez harro dagoela, basatikeri haren aurka borroka egiteagatik, bizitza galdutako bere alderdiko militante eta gainerako pertsonetaz, eta horregatik memoria historikoa berreskuratzeko ekintzen alde daudela eta baita diktaduren biktimen erreparatzeko ekintzen alde, eta konprenditzen dietela indibidualki, frankismoaren biktimak bezala, beraien eskubideak erreparatzeko ekintza judizialak tartejatzen dituztenei, eta halaber Buenos Aireseko 1 Epaitegian 4591/10 Kereilaren bitartez edo beste biktima-elkarte batzuen bitartez erreparazioa eskatzen dutenei.

Bestalde adierazi du, faltan botatzen duela mozioan ETaren aipamenarik ez dela egiten transiziotik hona egiten diren azalpenetan, eta bukatu du esanez bere alderdiak ulertzen duela ezin dela instituzional eta kolektiboki proposatutako neurriak asumitu, lege-legitimitatea ez dagoelako, eta ezin delako biktimei alderdi politikoen interes eta bere utilizazio politikopean utzi; hori dena kontuan hartuta bere alderdia abstenitu egingo dela adierazi du.

#### Dubreuil jn

### **MOZIOARI DAGOKIONEZ TALDE SOZIALISTAK DUEN POSIZIOA**

*Udal talde sozialista abstenitu egingo da mozio honetan azalpen nahiz xedapen zatiko hitzen erabilerarekin bat ez datorrelako.*

1.- Alde batetik, zenbait hitzen erabilera egokia den zalantzan jartzen dugu, esaterako:

a) “altxamendu” hitzaren erabilera, nahiz eta oso kutsu militarra eta faxista izan, ez zait oso egokia iruditzen. Altxamendu Nazional (Alzamiento nacional) izenarekin altxatu ziren Espainiako Bigarren errepublikako gobernuaren aurka, eta ondoren honela deitu zioten gobernu frankistakoek 1936ko uztailaren 17 eta 18 artean sortu zen jazarraldiari, ondoren Espainiako Gerra Zibila ekarri zuena. “Altxamendu” hitza ondorengo ideiarekin sinbolo bihurtu zen “Ejertzitoarekin senidetutako herriak protesta noble batean ezarri zuen espainiar luraren erabateko jabe izateko eskubidea” Altxamendua frankistentzako egiazko Espainiaren altxamendua izan zen, Errepublikan irudikatzen zen “anti Espainiaren” aurka, zatiketaren eta langile mugimenduen aurka. Propaganda frankistarentzako ez ziren espainiar batzuen aurka egiten zuten beste espainiar batzuk, baizik eta Espainia bera zen, bere oinarri historikoa, etsaien aurka altxatzen zen Espainia zen eta batez ere nazioarteko komunismoaren aurka altxatzen zena. Linguistikoki esan dezakegu beraz nahasmena sor dezakeela eta “altxamendu” horren benetako izaera lausotzen duela, baina “Estatu Kolpe” bat besterik ez zen izan. Gaur egungo historiografiak izendapen hori ezabatu du. Bakoitzari dagokion izena. “Estatu Kolpe” baten aurrean gaude beraz.

b) Horrekin batera zalantzan jartzen dugu “Elizako autoritate” gisako hitz orokorrak erabiltzea, Elizako autoritate guztiak barneratzen baititu horrek. Edo “Eliza” edota “klero” gisako hitz orokorrak zalantzan jartzen ditugu, nahiz eta paragrafo batean zehazten den “kleroaren zati” bat dela.

Errealitatean Espainiako gerraren inguruan espainiar apezpiku-taldeak egindako Gutuna ez zuten 5 prelatuk (eliz-agintaritzak) sinatu, gutun hartan Estatu Kolpea “altxamendu herritar-militar” gisa definitzen zen eta erregimena indartu nahi izan zen. Bost izan ziren, eta hori nahikoa da “Elizako autoritate” ez erabiltzeko eta beste hitz batzuk bilatzeko eskatzeko, errealitateari, memoria historikoari eta egia historikoari egokitzen zaizkion bestelako forma batzuk bilatzeko.

Gertutasunagatik don Mateo Múgica (Idiazabal, 1870-Zarautz, 1968) ekarri behar dugu gogora. Frankismoaren basakeriaren aurrean isildu ez zen prelatuetako bat izan zen. Bizi osorako zigortu zuten horregatik. Mateo Múgica, monarkikoa zen, 1931ko maiatzean erbesteratu zuten Errepublikaren aurka egiteagatik publikoki, eta 1933an itzuli zen. Gerra zibilaren hasieran altxamendu militarren alde azaldu zen, baina altxatutakoaren gehiegikeriak eta basakeriak ikusita eta euskal elizbarrutian izan zuten jarrera ikusita, iritzia azkar aldatu zuen.

Frente Polularrak irabazitako hauteskundeetan, 1936an, euskal nazionalistak katoliko onak izan daitezkeela esan zuen, bateragarriak zirela. Uztaila bukaeran, frankistek “gorri separatista” etiketa ipini zioten. Eta 1936ko urrian, Egoitza Santuan lehenengo aldiz salatu zituen altxatutakoaren gehiegikeriak. Protesta horretan bere diozesiarrak honela defendatzen ditu: “era bidegabean Mugimendu Nazionalen ordezkariak eta propagandistak jazartuak, irainduak, zigortuak eta espoliatuak”. Eta era berean,



*jakinarazten du, bere diozesian fededunak “era bidegabean Mugimendu Nazionaleko ordezkariak eta propagandistek jazartuak, irainduak, zigortuak eta espoliatuak” direla.*

*1937ko uztailaren 1ean argitaratu zen eta 48 prelatuk sinatu zuten “munduko gotzaiei gotzai espainiarren taldeko Gutuna” sinatzeari uko egin zion. Egoitza Santuari bidalitako gutun batean argi eta garbi azaltzen ditu uko egin izanaren arrazoiak. Frankoren Espainian Elizak askatasunik ez duela esanez adierazten du bere desadostasuna. Horrekin batera, “kristau sutsu eta elizgizon eredugarri pila baten” erailketa salatu zuen.*

*Batzuek bere adimen maila, irmotasuna, sendotasun morala, Elizarekiko fideltasuna eta bi erberteratzeetan erakutsitako duintasuna goratu zuten, beste batzuek ordea, bere elizaren aldeko integritasua, elizarekiko gehiegizko obedientzia itxia, eta monarkiaren aldeko eta batzuetan Francoren altxamenduaren aldeko atxikimendua kritikatu zuten. Ez dago zalantzarik ordea bere akatsaz jabetu zela eta zuzentzen saiatu zela erregimena kritikatu. Honek bera erbesteratzea ekarri zuen.*

*Bidezkoa da ondorengo kasuak ere gogora ekartzea. Badakizue, “Memoria historikoa” gogoan izanda. Testu edo enuntziatu orokorraren barnean sartzen da, Gotzain hau, eta bost prelatu hauek ere bai, 40 urteko erregimenean iraun zuen Eliza izendatzen dugunean. Eta testu edo enuntziatu horren barruan sartzen dira kolpistek hil, jazari, kanporatu eta mehatxatu zituzten ehundako elizgizon eta emakumeak.*

*Beharbada prelatu hauek ez dituzue gogoko beraien zalantzazko jarreragatik, kolpisten hurbilekoak izateagatik, edo beraien beligerantzia eskasiagatik... hori dela eta beste batzuk aipatu ditzakegu.*

*Adibidez, Alberto Onaindia kalonjea. Alberto Onaindia “kleroa” zen eta 36 urteko azaroan Mugica gotzaiari idatzi zion gutun bat. Gutun horretan, miliar faxistek zenbait elizgizon (“kleroa”ren barruan sartzen zirenak) fusilatu zituztela jakinarazi zion, Jose Ignacio Peñaricanorekin batera (“klero”koa hori ere) fusilatutako bere anaia Celestinoren (“klero”koa hori ere) azkeneko uneak kontatuz.*

*Zentzu honetan kontua desberdina izango zen mozioaren testuak “Eliza” edo “elizako autoritate” edo “kleroa”ri dagozkion erreferentziak zehaztu izan balitu eta frankismoaren amorrua jasan zuen beste Eliza hura, autoritate haiek edo beste klero hura desberdindu izan balu eta harengana hurbildu izan balitz. Frankista ez zirenen amorrua jasan zuten haiek ere ezin ditugu ahaztu.*

*Beraz, abstenitu egingo gara, testuak orokortasunak erabiltzen dituelako eta ez delako bidezkoa, kontakizun historiko hau ez da bidezkoa frankismoari lagundu ez zioten eta gainera frankismoaren aurka egin zuten ehundaka elizgizon eta erlijiosoekin, eta gainera, zuek “eliza” edo “Klero” hitz orokorrak erabilita, Kolpea emateko laguntza eman zutenen artean eta diktadura mantendu zutenen artean sartzen dituzue.*

*Testuan erabiltzen duzuen orokortasun horretan beraien oroimena eta historia ahaztuarazi eta iluntzen duzue, “Memoria historiokoaz” ari garelarik “kleroko zati honen” borroka eta lanaz, sufrimendu eta sakrifizioaz ari bagara. Gogorarazi nahi dut “eliza” hau Vaticanoa baino zerbait gehiago dela, zuek*

*aipatzen duzuen “eliza-hierarkia”tik eta “kleroko zatitik” kanpo. Estatu kolpeko unetik bertatik eta bereziki ondorengo urteetan kontra zeuden elizgizon, erlijioso eta oinarri katoliko ugariz ari gara. Diktaduraren aurka jo zuen “Elizaren” zati horretaz mintzo naiz, ezkerrean artikulazio bateraturako prozesu eraginkorra sortu zeneko elkarte, langile sindikatu eta ezkerreko alderdien bitartez. Horien Memoria eta Eredua berreskuratu beharko litzateke, eta aldiz, mozio honetan ez dituzue izendatzen. Horiek ere “eliza” ziren. Eta horrekin ez ditut beste “Eliza Ofiziala”ren eskuak garbitu nahi, Estatu Kolpearen laguntzaile fidel eta leiala. Baina gogora ekarri nahi dut zuen testuan aipatzen ez den beste klero hura.*

*Gure iragan hurbilena ezin dugu aipatu ditugun orokortasun horietatik berreskuratu, aitzitik, errealitateak eta egia historikoak benetako dimentsioa lor dezan kontuak gehiago zehazu behar ditugu.*

*Abstenitu egingo gara zuen testuan aipatzen diren zenbait gauza ere ez ditugulako ulertzen. Adibidez, lehenengo puntuan honakoa esaten denean: Ordiziako Udalak 1931.ean bide onez burututako Errepublika eta Gobernu Espainol, Katalan, Galego eta Euskaldunaren aurka 1936.eko Uztailen Francok antolatutako altxamendu militar-faxista salatzen du.*

*Estatu kolpe salatzea oso ondo ulertzen dugu. Nola ez ba! Guk ere salatzen dugu legez aukeratutako gobernu baten aurka eman zuten Estatu Kolpe hura.*

*Baina ez dut ongi ulertzen 1931.ean bide onez burututako Errepublika eta Gobernu Espainol, Katalan, Galego eta Euskaldunaren puntu hori. Aitortu behar dut historiaz dudan ezagutza ez dela oso zabala. Lehenengo euskal Gobernua 1936ko urrian eratu zela irakatsi zidaten niri, errepublikar Gorteek 1936ko urriaren 1ean onartutako Autonomia Estatutua indarrean sartutakoan, eta Eusko Jaurlaritza edo Gobernua sei egun beranduago. Testu horretan euskal gobernuaren legezko osaketa 1931ra aurreratzen dute. Norbaitek esango lidake mesedez zeintzuk osatzen zuten Gobernu Katalan, Galego eta Euskaldun hori? Gutxienez norbaitek esan diezadake zeintzuk osatzen zuten 1931n legez eraturako Euskal gobernu hori. Edo gauzak erraztearren, zein izan zen lehendakaria, edo 1931 urteko lehenengo lehendakaria?*

*Beste alde batetik, eta historia argi azaltzeko helburuarekin, komeni litzateke espainiar gobernuaren, estatu gobernuaren, ez nahastea gobernu autonomikoekin. Era horretan gertuagoko ikuspegia erakutsiko genuke une hartako errealitate historikoaren eta lurralde errealitatearen inguruan.*

*2. puntuari daokionez, ondorengo dio: Ordiziako Udalak gerora ezarritako diktadura erregimena salatzen du, berrogei urteetan zehar eragindako triskantza odoltsuegatik justizia soziala aldarrikatzen zutenen aurka eta baita Katalunia, Galizia eta Euskal Herriaren eskubide nazionalak aldarrikatzen zutenen aurka.*

*Bat egiten dut. Nola ez ba. Erregimen frankista iritzi desberdina zuen edonor desagerrarazten saiatu zen. Sozialistak, komunistak, anarkistak, apaizak, Errepublikari atxikitako militarrek, nekazariak,*

langileak, gizonak, emakumeak, umeak, adinekoak... akabatu zituen. Iritzi desberdina zuten guztiak akabatu zituen, ikuspegi sozial, ekonomiko, erlijioso edo lurraldeari zegokion ikuspegi desberdina zuten guztiak. Zuek diozuen bezala berdin zuen Kataluniakoa, Galiziakoa edo Euskal Herrikoa izan, edota nik eransten dudan moduan Murtziakoa, Ciudad Rodrigokoa, Santa Amaliakoa edo Alaejosekoa izan. Ez ditut soilik ekarri nahi gogora justizia sozialaren eta eskubide nazionalen alde borroka egin zuten katalan, galego edo euskaldunak, Estatuko beste probintzietakoak izanik espainiarren eskubide sozial eta indibidualen eta justizia sozialaren alde borroka egin zutenak ere gogora ekarri nahi ditut. Badakizue, Memoria Historikoaren alde egiteagatik, Errepublikari leialtasuna erakutsi zieten, justizia sozialaren alde, eskubide sozial eta indibidual guztien alde, askatasunaren alde, Espainia osoaren alde borroka egin zutenak, leialtasuna sufimenduaren truke, bazterketaren, erbesteratzearen, edo heriotzaren truke jasan zuten milaka espainiar ez katalan, ez euskaldun eta ez galego gogoan izateko eta ez ahazteko aipatu nahi ditut.

Etsaia akabatzeko, beraien tesia ezartzeko, eta boterea lortu eta mantentzeko frankista horien ezaugarri nagusienak dogmatismoa, tolerantzia eza, eta indarkeriaren erabilera izan ziren. Eta 40 urtetan zehar egin zuten. Nola ez ba, 40 urte horiek salatu. Badirudi gauza txarrek denbora luzean irauten dutela. Beti gehiegi. Eta tristuraz esaten dut. Gogorarazi behar dugu 50 urtetan zehar mota guztietako pertsobak hil dituztela: Ezkerrekoak, eskuinekoak, sukaldariak, taxistak, poliziak, militarrek, ertzainak, udaltzainak, zinegotziak, enpresariak, langileak, gizonak, emakumeak, umeak... soilik ideia berak partekatzen ez zituztelako, edo besterik gabe "handik barrena zihoaztelako". Azken finean iritzi desberdina zutelako, edo lurralde ikuspegi, ikuspegi sozial, ekonomiko desberdina... edo batek daki. Laburbilduz, ona da 5. puntuak diozuen eta nahi duzuen moduan hori berriro ez gertatzeko horren alde lan egitea.

3. puntuak honakoa dio: Ordiziako Udalak kolpe militar haren alde eta gerora bere gobernuen alde egin zuten industria, nekazal eta finantza oligarkiak eta Elizaren agintari eta partaideak salatzen ditu.

Ustez behar bezain argi azaldu dut kalte egiten duten "orokortasun" horiekiko iritzia.

6. puntuari dagokionez: Ordiziako Udalak 1977.eko Amnistia Legearen bidez, frankismoaren inpunitatea eragin zela salatzen du. Inongo garbiketarik egin ez zutelako botere esturturetan, batez ere diktaduraren arlo juridiko eta errepresiboetan (armada, polizia eta guardia zibila).

Besterik gabe adierazi nahi dut Diktadura garaiko armada, polizia eta guardia zibila ez direla gaur egun direnak. Eta lege horrek "frankismoaren inpunitatea" eragin bazuen ere, beste gauza batzuetarako ere balio zuela esan dezaket, eta beste batzuek une hartan aukera hura hautatu izan balute askok ez genuke hainbeste sufrimendu eta min jasa izango.

5. puntuari dagokionez. Ordiziako Udalak eta altxamendu militarragatik, erregimen frankistagatik eta Estatu terrorismoagatik errepresaliatuak izan zirenei bere eskubideak bermatzeko ahaleginetan ardura

hartuko du, erregimen haren EGIA plazaratzen, bere oinordekoek egiten ari diren historiaren errelato faltua salatuaz; JUZTIZIA aldarrikatzen, egungo inpunitatea sailhestuaz eta frankisten erantzukizuna exijituaz; milaka eta milaka biktimentzat ERREPARAZIO duin eta diskriminazio gabea eskatzen; eta, azkenik, gizarteak behar dituen aldaketa sozio-ekonomikoak, juridikoak eta instituzionalak eragiten, ERREPIKA-EZINAREN BERMEA ezartzeko.

Ez dira lan-lerro horretan ahalegindu diren bakarrak. Sozialistek beti babestu dugu Baltasar Garzon Epailak frankismoaren krimenen inguruan hasitako ikerketa judiziala, Nazioarteko Zuzenbidean oinarritutakoa, eta era berean bere garaian duintasun demokratikoa iraintzen zuela iruditu zitzaigun Frankoren ideologiaren oinordekoek, besteak beste Espainiar Falangeak, Epaila hau errudunen aulkian eserraraztea, hain zuzen ere frankismoaren krimenak ikertzeagatik ultraeskuinekoek martxan jarritako jazarpen kanpaina batean.

Sozialistek Historiaren ezagutzan oinarritutako Memoriaren politika bat eraikitzeko ekintzak sustatu nahi ditugu, Gerra Zibileko eta diktadura frankistako ondorioak jasan zituztenen duintasuna eta memoria berreskuratzeko eta oinarri demokratikoen alde egiteko .

Gure ustez Zuzenbide estatuak baditu dagoeneko altxamendu militarrek, erregimen frankistak eta Estatu terrorismoak jazarri zituztenen eskubideak bermatzeko lege-aurrekariak, azaroaren 19ko 280/2002 Dekretua esaterako, Amnistiari buruzko Legean jasotako kasuen ondorioz askatasun gabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioa emateari buruzkoa, otsailaren 14ko 22/2006 Dekretua, askatasuna ukatu zitzaie pertsonari diruz ordaintzeko xedapenak zehazten dituen, Soldadu Langileen Diziplinazko Batailoietan jasandakoa barne, azaroaren 19ko 280/2002 Dekretuan araututako baldintza eta betekizun berberekin, Amnistiari buruzko Legean jasotako kasuen ondorioz askatasun gabetzea jasan zuten pertsonentzako konpentsazioa emateari buruzkoa, arau honetan aurreikusitako prozedura aldaketak izan ezik.

Horrekin batera abenduaren 26ko 52/2007 Legea, Gerra Zibilean eta Diktaduran zehar jazarpena edo indarkeria jasan zutenen aldeko neurriak zehazten dituen eta eskubideak aitortu eta zabaltzen dituenekoa.

2000. urtetik aurrera pizten da biktimen materiagabeko eskubideen aldeko kontzientzia instituzionala, eta bereziki memoriarako eskubidea, horri guztiari bizikidetzeta eta demokrazia oinarrien garapena batuz.

Horiek horrela, Euskadin ondorengoak ipini dira martxan: 2006an Bake eta Elkarbizitzarako Plana, 2007ko Bake Hezkuntzarako eta Giza Eskubideen Euskal Plana, eta 2010eko Elkarbizitza Demokratikorako eta Indarkeriaren Deslegitimaziorako Plana.

Memoriaren aurrerabidea legegilearen eskutik etorri dela esan dezakegu, eta Memoria Historikoaren legearen bitartez memoriarako eskubidea definitu da eta elkarbizitza demokratikoa sustatzeko oinarritzko elementutzat hartu da, eta horietan biktimen berreskurapen moralaen eskubideak finkatzen dira,

*memoria berreskuratzen da eta oinarri eta balore demokratikoen sustapenerako benetako politika publikoa definitzen da, Euskadin onartzera heldu delarik Memoriaren, Elkarbizitzaren eta Giza Eskubideen Insitutua sortzea.*

*Horregatik guztiagatik, beharrezkoa iruditzen zaigu iraganaren Memoria aldarrikatzea, eta horretan ados gaude zuekin, ezin da orain artekoa berriro gertatu.*

*Horregatik, mozio honetan abstenitu egingo gara, gaur egungo sistema demokratikoan beharrezkoak ez diren eta gaindituta beharko luketen zenbait aldarrikapen partekatzen ez ditugulako, eta azalpen nahiz xedapen zatiko testuaren litaraltasunarekin ados ez egoteagatik, nire interbentzioaren hasieran azaldu dudan moduan.*

#### Alkate jn

Adierazi du bi puntualizazio egin nahi dizkiola Dubreuil jaunak esandakoari:

- Denak igo bagina karrora 1977. Urtean, denak askoz hobeto egongo ginela, hori horrela izango litzatekeela orduan denei erabakitzeke eskubidea bermatu balitzaiguke. Eta exerzitua, polizia, eta guardia zibilar dagokienez lehen egiten zutena babesa bazuen ere, gaur egun gauza bera egiten dutela beste "maskara" baten azpian.
- Gobernu katalan, Galego eta Euskaldunak 1931. osatu zirela esaten denari buruz, argitu du euskerazko bertsioan ondo dagoela, eta azkenen erderazko bertsioiko itzulpen akats bat besterik ez dela.

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6(EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du,:

## **7.- Ordiziako PSE-EE (PSOE)k “Zahartze aktiboaren eta belaunaldien arteko elkartasunaren Europako Urtea”ren inguruan aurkeztutako mozioa.**

### Proposamena

#### OINARRIAK

2012. urte hau «Aktiboki zahartzearen eta belaunaldien arteko elkartasunaren urte europarra» izendatu du EBk, helburua izanik ez soilik Europako herritarrak sentsibilizatzea adinekoek gizarteari egin diezazkioketen ekarpenez, baita arduradun politikoak eta interesa izan dezaketen pertsonak animatzea zahartze aktiborako aukerak sortzen eta belaunaldien arteko elkartasuna indartzen ere jardun daitezten. Gaur egun, adineko pertsonak argi eta garbi erakutsi dute autonomiarako borondatea, eta horren lekuko, % 87k bere etxean bizi nahi du al bait denborarik gehien. Baina, aldi berean, familiarako harreman sakonak eduki nahi dituzte. Horren eta erakusten duten belaunaldien arteko elkartasunaren ondorioz, % 70ek beren biloben zaintzan laguntzen dute. Luzeago eta hobeto bizitzea ongizate-estatuaren lorpenzat hartu behar da. Erretiroak bizitza-zikloaren beste etapa bat behar du izan. Eta horretan, erretiratuek beren bilakaera propioaren protagonista izan behar dute, eta halaxe hartu behar ditugu. Horretarako, protagonismo hori haien barne- zein kanpo-esferan aitortu eta babestu behar da. Alabaina, azken urteotan helduen ekonomia-egoera hobetu bada ere, txirotasunaren arrisku-tasa lau puntuz gailentzen zaio Espainiakoaren batez bestekoari Gaur egun, helduen % 21,7k arrisku hori du, eta, krisi-garai honetan, ehuneko hori handitzen ari da.

Hala ere, gero eta heldu gehiago hartzen ari da espero ez zuen protagonismoa gizarteari egindako ekarpenengatik; ez soilik aitona-amona zaintzaileak izateagatik, baita beren pentsioengatik ere, izan ere, haien sema-alabekin eta/edo bilobekin bizi diren etxeetan diru-iturri nagusi bihurtu baitira.

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, honela definitzen da zahartze aktiboa: "osasun-, parte-hartze eta segurtasun-aukerak optimizatzeko prozesua, pertsonak zahartu ahala bizi-kalitatea hobetzea helburu duena".

Gizartearen aurrerapenak eta horren garapen demografikoak elkarbizitzan, integrazioan eta ongizatean esku hartzea eskatzen du inolako zalantzarik gabe. Ordizia ez da egoera horretatik kanpo geratu, eta urteak joan, urteak etorri, zahartze aktiboa bultzatzen duten politiken aldeko makina bat urrats garrantzitsu eman, eta ekimen eta ekintza garatu ditu.

Aurrerapauso garrantzitsu bat izan zen 'Ordizia, hiri hezitzailea' programa abian jartzea. Beste aurrerapauso garrantzitsua Ordiziako helduei zuzendutako I. planaren zirriborroa izan zen; berau, aurreko legealdiaren azken hilabeteetan landua. Zirriborroa gizarte-ongizateko udaleko aholku-batzordearen erabakiz eratutako lantaldeak burutu zuen. Aipatu lantaldea udalerriko arlo politikoko eta sozialeko pertsonak osatu zuten (Kimetz, Nagusilan, Afagi, Erretiratuen eta Pentsiodunen Egoitza, Cáritas, Gueske, EAJ, EA eta PSE-EE). Dokumentua ongizatean eta Ordizian zahartzen diren pertsonetara tratatu onean aurrera egiteko asmoen eta proposamenen dokumentutzat har daiteke.

Legealdiko beste aurrerapauso garrantzitsu bat 'Pertsona adinduekin Hiri adiskidetsuen munduko sarera' atxikitzearen aldeko konpromisoa izan da.

Inolako zalantzarik gabe, Ordizia historikoki gogor saiatu izan da pertsona helduen arloa lantzen.

## HORREGATIK GUZTIARENGATIK

Ordiziako Udalak, mozio hau onartuta, bat egiten du aktiboki zahartzearen eta belaunaldien arteko elkartasunaren urte europarra ospatzearekin.

Ordiziako Udalak, berriro ere, bizitasunaren, osasunaren, gogobetetasunaren eta bizitza-kalitatearen sinonimo den zahartze-kontzeptuaren alde egiten du, eta gure adinekoen zahartze aktiboaren aldeko konpromiso irmoa adierazten du. Ildo horretan, adinekoek gizartean parte-hartze aktiboa izatea bultzatuko du; horretarako, adinekoen protagonismo handiagoa eta gizartean eta politikan parte hartzea ekarriko duten politiken, eta, adina tarteko, gizarte-dinamikatik baztertuko ez dituen elkartasunezko parte-hartzea ahalbidetuko duten jardunen alde egingo dugu.

Hortaz, Ordiziako Udalaren iritziz zahartzea ez da soilik gizarte-zerbitzuen kontua, osasun-zerbitzuena, enplegu-, kultura-, hezkuntza-, etxebizitza-, hirigintza-zerbitzuena ere bada, besteak beste. Horrenbestez, arazoa zeharkakoa da, ez sektoriala.

Ordiziako Udalak konpromisoa hartzen du adinekoek, gizartearen zati diren aldetik, dagozkien eskubideetara egokitutako izaera garatzen, sustatzen eta zabaltzen jarraitzeko, diskriminaziorik eta tratu-desberdintasunik gabe, eta, halaber, aipatu ildo horretan aurrera egingo duten neurri politikoak ezarriko ditu."

Ordiziako Udalbatzak konpromisoa hartzeko du iritzi publikoari adinekoek gizarteari egiten dizkioten ekarpenen garrantzia erakutsiko dioten ekintzak garatzeko, eta, halaber, konpromisoa hartzen du gizarte-boluntarioria eta osasuna sustatzeko udal-programa berreskuratzeko; izan ere, aipatu programari 'Herritarren partaidetza eta boluntarioria sustatzea' arloan izandako berrantolaketak eragin baitio (boluntarioriazaren azoka, boluntarioria aintzatesteko ekitaldiak, eta abar).

Ordiziako Udalbatzak, jardute-eremu honetan udalaren ekimena zehaztasunez eta xehetasunez iragarriko duen, finantziarioa ezarriko duen eta aipatu jarduna egituratuko duen plan baten faltan, Bilduko udal-gobernuari eskatzen dio alaitz azkarren auzez dezala Ordiziako herritarren zahartze aktiboa sustatzeko baliagarriak izango diren ekintzak garatzeko I. Plana. Plana, Ordizia adin guztiekin adeitsu izatea errealitate bihurtuko duen esparru edo proiektu global horretan txertatu beharko da, proiektu horren zati izan beharko du, eta balio handiko eta ezinbesteko ekarpena izan beharko du.

## POR TODO ELLO

1. Ordiziako Udalak, mozio hau onartuta, bat egiten du aktiboki zahartzearen eta belaunaldien arteko elkartasunaren urte europarra ospatzearekin.
2. Ordiziako Udalak, berriro ere, bizitasunaren, osasunaren, gogobetetasunaren eta bizitza-kalitatearen sinonimo den zahartze-kontzeptuaren alde egiten du, eta gure adinekoen zahartze aktiboaren aldeko konpromiso irmoa adierazten du. Ildo horretan, adinekoek gizartean parte-hartze aktiboa izatea bultzatuko du; horretarako, adinekoen protagonismo handiagoa eta gizartean eta politikan parte hartzea ekarriko duten politiken, eta, adina tarteko, gizarte-dinamikatik baztertuko ez dituen elkartasunezko parte-hartzea ahalbidetuko duten jardunen alde egingo dugu.

3. Hortaz, Ordiziako Udalaren iritziz zahartzea ez da soilik gizarte-zerbitzuen kontua, osasun-zerbitzuena, enplegu-, kultura-, hezkuntza-, etxebizitza-, hirigintza-zerbitzuena ere bada, besteak beste. Horrenbestez, arazoa zeharkakoa da, ez sektoriala.
4. Ordiziako Udalak konpromisoa hartzen du adinekoei, gizartearen zati diren aldetik, dagozkien eskubideetara egokitutako izaera garatzen, sustatzen eta zabaltzen jarraitzeko, diskriminaziorik eta tratu-desberdintasunik gabe, eta, halaber, aipatu ildo horretan aurrera egingo duten neurri politikoak ezarriko ditu."
5. Ordiziako Udalbatzak konpromisoa hartzeko du iritzi publikoari adinekoek gizarteari egiten dizkieten ekarpenen garrantzia erakutsiko dioten ekintzak garatzeko, eta, halaber, konpromisoa hartzen du gizarte-boluntarioria eta osasuna sustatzeko udal-programa berreskuratzeko; izan ere, aipatu programari 'Herritarren partaidetza eta boluntarioria sustatzea' arloan izandako berrantolaketak eragin baitio (boluntarioria azoka, boluntarioria aintzatesteko ekitaldiak, eta abar).
6. Ordiziako Udalbatzak, jardute-eremu honetan udalaren ekimena zehaztasunez eta xehetasunez iragarriko duen, finantziarioa ezarriko duen eta aipatu jarduna egituratuko duen plan baten faltan, Bilduko udal-gobernuari eskatzen dio alait azkarren auzez dezala Ordiziako herritarren zahartze aktiboa sustatzeko baliagarriak izango diren ekintzak garatzeko I. Plana. Plana, Ordizia adin guztiekin adeitsua izatea errealitate bihurtuko duen esparru edo proiektu global horretan txertatu beharko da, proiektu horren zati izan beharko du, eta balio handiko eta ezinbesteko ekarpena izan beharko du.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Dubreuil jn.

Adierazi du mozio honen bitartez, bat egin nahi dela aktiboki zahartzearen eta belaunaldien arteko elkartasun urte europarra ospatzearekin; jarraitu du esanez betidanik Ordiziako Udala gai honen aurrean bere aldeko jarrera agertu duela, horretarako dagozkion programak bultzatzen, eta azkenik mozioaren datu esanguratsuenak aipatu ditu.

#### Santamaria jn:

Adierazi du Ordiziako Udalak betidanik gai honekiko benetako konpromezua agertu duela, eta gogorazi du alderdi guztiek adostu dutela mozioaren 6. puntua kentzea.

#### Maiza and

Esan du egia bada ere mozio horretan esaten den guztia, ez dagoela batere ados Dubreuil jaunak esaten duenean gai honetan gauzak moteldu egin direla ; jarraitu du esanez sana dela tarteka egiten



diren programen aurrean hausnarketa egitea, egin dena aztertzea eta zentzu horretan Gizarte Ongizatean dagokion hausnarketa egiten ari dela beti ere gauzak hobetzen joateko helburuarekin eta ez dagoela ongizate programak moteltzeko inongo asmorik.

#### Alkate jn:

Adierazi du mozio hau PSE-EE (PSOE)k aurkeztutako mozioa dela, eta 6. Puntua kentzeko adostasun batera iritsi dela alderdien artean, eta hori horrela izanda beraien alderdiak alde bozkatuko duela.

Beraz, alderdi guztiek adostutako mozioa honela geratzen da:

- 1. Ordiziako Udalak, mozio hau onartuta, bat egiten du aktiboki zahartzearen eta belaunaldien arteko elkartasunaren urte europarra ospatzearekin.**
- 2. Ordiziako Udalak, berriro ere, bizitasunaren, osasunaren, gogobetetasunaren eta bizitzakalitatearen sinonimo den zahartze-kontzeptuaren alde egiten du, eta gure adinekoen zahartze aktiboaren aldeko konpromiso irmoa adierazten du. Ildo horretan, adinekoek gizartean parte-hartze aktiboa izatea bultzatuko du; horretarako, adinekoen protagonismo handiagoa eta gizartean eta politikan parte hartzea ekarriko duten politiken, eta, adina tarteko, gizarte-dinamikatik baztertuko ez dituen elkartasunezko parte-hartzea ahalbidetuko duten jardunen alde egingo dugu.**
- 3. Hortaz, Ordiziako Udalaren iritziz zahartzea ez da soilik gizarte-zerbitzuen kontua, osasun-zerbitzuena, enplegu-, kultura-, hezkuntza-, etxebizitza-, hirigintza-zerbitzuena ere bada, besteak beste. Horrenbestez, arazoa zeharkakoa da, ez sektoriala.**
- 4. Ordiziako Udalak konpromisoa hartzen du adinekoen, gizartearen zati diren aldetik, dagozkien eskubideetara egokitutako izaera garatzen, sustatzen eta zabaltzen jarraitzeko, diskriminaziorik eta tratu-desberdintasunik gabe, eta, halaber, aipatu ildo horretan aurrera egingo duten neurri politikoak ezarriko ditu."**
- 5. Ordiziako Udaltzaren konpromisoa hartzeko du iritzi publikoari adinekoek gizarteari egiten dizkieten ekarpenen garrantzia erakutsiko dioten ekintzak garatzeko, eta, halaber, konpromisoa hartzen du gizarte-boluntariotza eta osasuna sustatzeko udal-programa berreskuratzeko; izan ere, aipatu programari 'Herritarren partaidetza eta boluntariotza sustatzea' arloan izandako berrantolaketak eragin baitio (boluntariotzaren azoka, boluntariotza aintzatesteko ekitaldiak, eta abar).**

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**8.- “Krisiaren aurkako plana” egiteko Ordiziako PSE-EE (PSOE)k aurkeztutako mozioa.**

Ondoren aipatzen den bezala, mozioa gai-zerrendatik kendu da.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Dubreuil jn.

Mozioaren aurkezpena egin du, eta mozioaren edukiari buruzko azalpenak eman ditu, adostasun batera iritsi direla eta bere poza azalduz.

Santamaria jn.

Dubreuil jaunak esan duenaren harira, adierazi du jasatzen ari garen krisisa horren larria denez, krisiaren aurkako plana gaurkotzea eta herritarren partehartze foroa martxan jartzekoaren alde dagoela. Konzientek direla ekintza horietatik ez direla etorriko soluzioak, baina egiten diren ekintzak eta inizatibak bai udal edo eskualde mailan baliagarriak izan daitezkeela.

Bestalde, ikusita adostu den mozioa erabat aldatzen dela gai zerrendan sartutako mozioaren edukiarekin, eskatu du bozketa egitea mozioa kentzeko eta bere ordeztutako enmendakina sartzeko, kaleratzeko mozioekin egin den bezala.

Alkate jn:

Adierazi du bat datorrela Santamaria jaunak eginiko proposamenarekin, eta ondoren mozioa eguneko gai zerrendatik kentzeko bozketara pasatzen da.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, mozioa gai zerrendatik atera du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**9.- Sasieta Mankomunitateko aholkulariaren kontratazioaren inguruan Ordiziako PSE-EE(PSOE)k aurkeztutako mozioa.**

Proposamena

OINARRIAK

Orain arte Ordizian eta Goierrin zaborra jasotzeko sistemak hobetzeaz arduratu izan gara urtez urte. Kanean zaborra pilatuta geratzen zen garai batean aurreko sistemekin, eta 1991 urtean zabortegi kontrolatua martxan jarri zenetik, Sasieta hondakinak jaso eta erreziklatzeko martxan jarri dituen politika berriarekin jauzi kualitatibo eta kuantitatibo handia eman da.

Ordizian urtez urte eta askotan hedatu, hobetu eta konpondu dugu zaborrontzien sistema, gure kaleak egunero garbitzeaz arduratu gara, gure etxeetako eta eraikin esanguratsuetako fatxadak garbi edukitzeko ardura izan dugu, gure azoketan hondakinak biltzeko sistemak hobetzen jardun dugu, gaikako bilketari dagokion gaietan aurrera egiten saiatu gara, jende guztiak badaki hori. Eta hori egin dugu Ordizia garbi bat nahi izan dugulako beti. Horregatik egin nahi ditugu hobeto gauzak. Horregatik onartzen dugu 5. edukiontzia. Ordizian eskualdeko garbigune berri bat ipintzeko lanean ari gara horregatik, udalerrian erreziklatzeko kanpainak garatzeko lan egiten dugu, edo egunez egun gaikako bilketa hobetzeko...

Sasieta Mankomunitateak eta Ordiziako Udalak bere garaian abenduaren 23ko 7/2008 Foru Arauaren eta P1GRUG-ren aldeko iritzia adierazi zuten, horien bitartez onartzen da Gipuzkoa 2002-2012ko Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Integratuaren (2008-2016) progresu txostena. Sozialistak, hondakinen erreziklapen-maila hobetzearen alde egonda, atez ateko sistema jartzearen kontra gaude, garestiagoa, deserosoa, eta osasunaren kalterako izanda, eta behin baino gehiagotan adierazi dugu edukiontzien sistemaren aldeko gure apostua, baita gai organikoari dagokionaren aldekoa ere. Horregatik guztiagatik, une honetan Mankomunitateak Sasieta zabortegia ixtea izan beharko luke buruan, eta ez Hondakinen Partzuergoaren esku uztea lurzoru eta harrobiak zabortegi berriak irekitzeko. Eta oraindik gutxiago aholkulari bat kontratatzea, gaur egun dugun egoerarekin.

Ikuspuntu operatibo batetik, ez dugu pisuzko arrazoirik aurkitzen aholkulari bat kontratatzeko 52.000 euro erabiltzea Sasieta osatzen dugun Udalentzako une ekonomiko zailean daudela kontuan hartuta. Ikuspuntu politikotik ikusita onartezina iruditzen zaigu, bere funtzioak betetzeko liberatua dagoen Lazkaoko gaur egungo alkateak, aholkulari postu bat sortu nahi izatea. Gogorarazi behar dugu, Sasieta orain arte izan dituen lehendakari guztien artetik, zeregin politikoak burutzeko liberatuta dagoen lehena dela, baina dirudienez, hori ez da eguneroko lana ateratzeko nahikoa, eta Bilduk horregatik proposatzen du aholkulari bat kontratatzea.

Beste ikuspuntu batetik, politikotik hau ere, bitxia iruditzen zaigu ezker abertzaleak beti zalantzan jarri izan duen zerbait praktikan ipintzea, eta hori konfidantzazko postua sortzea eta Erakundeetan "txiringitoak" ipintzea da.

Ordiziako Udaleko talde sozialistak ondorengo MOZIOA aurkeztu du, eta honen bitartez,

1.- Udal honek Osoko bilkuraren bitartez Sasieta Mankomunitateko Lehendakariari bere desadostasuna adierazten dio aholkulari baten kontratazioari dagokionez eta Lehendakariari eskatzen dio edozein aholkulariren kontratazioari uko egitea, eta jakinarazten du kontratazioak ekar lezakeen edozein gasturi aurre egiteko aurrekontuetan ez duela gasturik aurreikusiko.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaltu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Dubreuil jn.

Mozioaren aurkezpena egin du, eta adierazi du nahiz eta Sasieta Mankomunitatean ezer ez adostu, jakin dutela Mankomunitateko lehendakariaren asmoa aholkulari bat kontratatzeke, eta ez dutela kontratazio hori beharrezkoa ikusten eta kontratazioaren aurka daudela.

#### Santamaria jn:

Adierazi du bat datorrela Dubreuil jaunak esandakoarekin.

#### Asenjo jn:

Goraipatu du orain arte Sasieta Mankomunitateak egindako lana, eta baita bertako langile eta teknikoek egindako eta egiten ari diren lana, baita hainbat eta hainbat Ordiziarrek birziklapenaren alde egin duten apostua; hori horrela bada ere birziklapenaren portzentaia gaur egun %37<sup>a</sup> dela, eta atez-ateko sistemaren bitartez %75<sup>a</sup> iritsiko dela.

Jarraitu du esanez beraien apostua, hau da birziklapenaren alde, EAJ eta PSEk proposatutako errauskinarena baino merkeagoa dela, eta bere ustetan mozioaren helburua ez dela aholkulariaren kontratazioaren aurka joatea baizik eta atez ateko sistemaren aurka joatea, eta azkenik kontratazioa egiten ez bada, ez dela izango EAJ eta PSEk hartutako jarreragatik, baizik eta Rajoy Dekretuaren eraginez, garbi utzita azkenean kontratazioa egiten bada beti ere kontratazioa kriterio teknikoetan oinarrituko dela eta ez beste edozein kriterioetan.

Bukatu du esanez, gai honetan EAJ-PSE alderdiek, ez ekarpenak egin, baizik eta bakarrik traba egiteko jarrera dutela.

Bolinaga jn:

Adierazi du gauden egoera ekonomikoa ikusita demagogikoa iruditzen zaiola pertsona berri bat kontratatzea besten diruarekin.

Alkate jn:

Erantzun dio zerrenda bat egin beharko litzatekeela besten diruarekin egiten diren kontratazioak agertuz, baina edozein kasutan hau ez dela hori eztabaidatzeko lekua.

Dubreuil jn:

Adierazi du, nahiz eta Rajoy Dekretua hor egon, garbi dagoela Sasieta Mankomunitateko lehendakariak aholkulari bat kontratatu nahi duela, Sasieta kontura, beraz udalerrien kontura, eta berak ez duela beharrezkorik ikusten tekniko bat kontratatzea, eta horregatik mozioaren intentzio bakarra aholkulariaren kontratazioaren aurka joatea dela.

Asenjo jn:

EAJ-PSE demagogi hitza erabiltzen dutenean, gogorarazi nahi die demagogia aurrekontu diferentzian dagoela (beraien aurreikuspena 400.000.000,00 euro eta Bilduaren aurreikuspena 200.000.000,00 euro), baita demagogia dagoela iazko agintaldian pasatu zena Goierriko herriko txiki batekin (ez zioten atez-ateko sistema jartzen utzi eta enpresa pribatua kontratu zuten), eta bukatu du esanez atez ateko sistema ezarriko dela bakarrik Udal Osoko Bilkurak onartzen dituen herritan, eta hori ez dela inolaz ere demagogia.

Dubreuil jn

Galdetzen du ea kontratazioa azkenean egin behar den ala ez.

Asenjo jn:

Berriro ere errepikatu dio Sasieta Mankomunitatea entitate publikoa denez behar bada arazoak egon daitezkeela Rajoy Dekretuaren arabera.

Alkate jn:

Erantzun dio Dubreuil jaunari, kontratazio hau azkenean egiten bada tekniko kualifikatu profila izango duela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (PSE-EE (PSOE)1, EAJ 5)

Kontrako botoak: 7(BILDU 7)

Abstentzia: 0

**Alkate jaunak ondorioz, proposamena ez onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**10.- 2012ko Aurrekontuetako Kreditu transferentzien espedientea onartzea.**

Proposamena

Zerbitzu Delegazioak Udaltzaingorako 3.610,57 euroko gastua duten 3 walkie-talkie erostea proposatu du, eta Udaltzaingoko bulegoan 4 panel banatzaile ipintzea, 1.269,05 euroko gastuarekin.

Gastu hauek egiteko aurrekontu-krediturik ez dagoenez, gastu hauek egiteko 623.222.12.01 partidari soberan dagoen kreditua erabiltzeko proposamena egin dute.

Kontuhartzailearen txostenean jasotzen da partida honetan ez dagoela kreditu nahikorik.

Aipatutako partidari egotzitako gastuak 212.222.12.01 partidara pasatzea kapitaleko gastuak ez direla aintzat hartuta, 623.222.12.02 partidari proposatutako gastuak burutzeko kreditua sortuz.

Osoko bilkurak onartu behar du inbertsioetako kredituak jaistea.

**AKORDIO PROPOSAMENA**

**4.879,62 euroko kreditu transferentzia onartzea 623.222.12.02 partidatik 623.222.11.04 partidara 3.610,57 euroko kopuruarekin eta 625.222.11.99 partidara 1.269,05 euroko kopuruarekin.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontuhartzaile in

Aurkeztutako espedienteari buruzko xehetasunak eman ditu.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7,)

Kontrako botoak:0

Abstentzioa: 6 (EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

**Beraz Alkateak aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 11. puntuaren berri eman du:

**11.- (Upabi) 12 HIEko AASSen aldaketa.**

Proposamena

Hirigintza Interbentzio eremuaren udal Plangintzaren Arau Subsidiarioetako elementuak aldatzeko bideratu den espedientearen berri ematen da, Arizmendi Unzueta Estudioak S.L.P. egindako dokumentuaren eta Udal honek sustatutakoaren arabera.

Udalbatzak hasierako onarpena eman zion 2009ko azaroaren 26ko osoko bilkuran, 2009ko abenduaren 21eko datarekin eta 241 zenbakiarekin GAOn argitaratu zen eta Udaleko iragarki-oholean ipini zen jendaurrean legeak zehazten duen epean eta eran, eta 2009ko abenduaren 22ko egunkarian ere argitaratu zen, eta alegazioak aurkezteko epean Pedro González Lazcano jaunak eta Luis María González Lazcano jaunak alegazioak aurkeztu zituzten, baina ondoren, 2011ko urtarrilaren 28an uko egiteko eta atzera egiteko idatzia aurkeztu zuten.

Horrekin batera Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Saileko eta ADIFen txostenak jaso dira.

2012ko azaroaren 15ean Arizmendi Unzueta Estudioa S.L.Pk hasierako onarpena emateko dokumentua aurkeztu zuen.

2012ko azaroaren 20ko udal arkitektoaren txostena ikusita Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak 2012ko azaroaren 21ean egindako bileran ondorengo proposatzea erabaki du:

AKORDIO PROPOSAMENA

**1.- 2012ko urrian aurkeztutako dokumentuan oinarrituta eta txosten teknikoan jasota dauden hasierako onarpenari egindako aldaketak kontuan izanda “UPABI-12” HIEko udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako elementuen aldaketa onartzea behin-behinean.**

**2.- Espedientea bidaltzea EHLABri alde aurreko txosten loteslea egin dezan.**

**3.- Alkatetzari akordio hauek sustatzeko beharrezkoak diren xedapenak egiteko eskumena ematea.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Absolutoa.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jn.

Alkate jaunak adierazi du nahiz eta 2009. urtean hasierako onarpena eman espedienteari, arrazoi desberdinengatik luzatu egin dela, eta azkenean lortu dela behin-behineko onarpena emateko espediente osatzea, azpimarratuz 2012-11-28ko Udal Plangintzaren Aholku Batzordan aldeko oniritzia eman zaiola espedienteari.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak:0

Abstentzia: 0

**Beraz Alkateak aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak alderdi guztien artean adostutako proposamenak presazko izaeraz sartzea bozketatu da.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak:0

Abstentzia: 0

**Beraz Alkateak aurkeztutako proposamenen presazko izaera onartutzat eman du.**

### Proposamena

#### **10.- Etxe kaleratzeen egoeraren aurrean adostutako proposamena.**

1.- Udal honek, etxe kaleratze denak denbora mugagabeen bertan behera uzteko exijitzen du. Herritarren eskubideen defentsa bermatzeko legediaren aldaketa exijitzen du. Era berean, herritarren etxebizitza eskubidea babesten du, gai honetan bankuek eta espainiako gobernuak duten jarrera ozen salatuz.



2.- Udal honek, ohiko etxebizitzaren jabetzaren baitan ematen diren etxe kaleratzeak ezezik, alokairu erregimenaren baitan ematen diren etxe kaleratzeak ere bertan behera uzteko exijitzen du, Banku, Kutxa, Kooperatiba eta entitate publiko eta pribatuen jabetzakoak diren kasuetan. Banku, Kutxa eta kooperatiba guztiei, udalarekin duen harremanagatik bereziki Kutxabank-i, inongo kasutan ohiko eta lehen etxebizitza kaleratzerik gehiago ez egiteko exijitzen dio.

3.- Jaurlaritzari eskatzen dio Mailegu Bitartekaritza hobetzen jarrai dezala. Aldi berean, etxe kaleratzeak sufritzen dituzten familiei laguntza emateko alokairu sozialen aldeko jarrera indartu dezala.

4.- Udal honek, etxe kaleratzeen gaiarekin duten jarreraren arabera kreditu entitateekin duen harreman instituzionala, ekonomikoa eta elkarlana berrikusi egingo ditu.

5.- Udal honek, herritarren jakinaren gainean utziko du etxe kaleratzeen gaiaren aurrean banku, kutxa edo Kooperatiba bakoitzak duen jarrera. Herritarrei informazio zehatza emateko konpromisoa hartzen du.

6.- Udal honek, ohiko etxebizitzaren etxe kaleratzea nozitu duen herritarrei zein egoera horren arriskuan daudenei informazioa eta laguntza emateko baliabideak jarriko ditu; etxe kaleratzea ekiditeko helburuarekin, dagokion entitate finantzieroarekin harremanetan jarriaz. Kaltetuen eskura, tefeno zenbaki bat eta Email bat jarriko dira.

7.- Udal honek, ez du etxe kaleratze prozedurarik bultzatuko eta beraietan parte hartuko. Era berean bide horretan parte hartzeari uko egiten dioten udal langileak babestuko ditugu.

8.- Udal honek, etxe kaleratzeen aurka lanean ari diren gizarte eragileekin elkarlanerako duen prestutasuna adierazten du. Egoera elkarrekin aztertu eta dagokigun eremuetan urrats sendoak emateko konpromisoa hartzen du.

9.- Udal honek hobariak emango dizkie (ura, zaborra...) etxe kaleratuentzat alokairu sozialean haien etxebizitza hutsak jartzen dituzten herritarrei. Udalak aztertu eta erabakiko du hobarion zenbatekoa.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jn.

Alkateak adierazi du adostutako mozio honek 5. Eta 6. Puntuak ordezkatzeko dituela, eta Bildu taldetik egiten den hausnarketaren arabera, Madrilgo aurreko gobernuak atea ireki ziola arazo honi, eta oraingo gobernuak arazoa "sukalderaino" sartu duela, kaleratze kasuak oso gertuan ematen ari direla eta nahiz eta Madrilgo gobernuak legea aldatuko duela esan, ikusi beharko dela noraino iristen den, eta bukatu du esanez eskandalo bat dela erreskatatze prozesuan dauden bankuen jarrera arazo honen aurrean, eta

adostutako mozio honekin ekintza zehatzak adostu nahi izan direla honelako kasuak ematen direnean arazoari aurre egiteko.

#### Santamaria jn:

Alderdiek adostasun batera iristeko eginiko esfortzua aipatu du, eta oso positibotzat jotzen du mozioa, zeren eta ekintza zehatzak eta koherenteak planteatzen ditu. Bukatu du esanez pena dela berandu etortzea, besteak beste izandako gertaerak ikusita, eta baita Ordizian dagoeneko eman direlako kaleratze kasuak.

#### Dubreuil jn:

Adostu den mozioa dela eta bere poza azaldu du, baita Santamaria jaunak adierazitakoaren harira bere pena azaldu du berandu egiten delako; zentzu horretan baita aitortzen du bere alderdiaren erreflejo falta gai honetan, nahiz eta hauteskunde programan jasota egon. Bere ustetan administrazio publiko guztiek ardura dute gai honetan, eta Udalaren kasuan jendearekiko gertutasuna kontuan hartuta ahal duen neurrian aurre egin behar dio arazo honi eta bere eskutan dauden neurri guztiak hartu behar ditu. Bukatu du esanez jakin beharko litzatekeela zein den benetako egoera Ordizian, eta datu hori ezagutzeko zein diren iturri zuzenak begiratu beharko litzatekeela.

#### Alkate jn:

Aipatu du mozioan neurri prebentibo jakin batzuk eta beste neurri jakin batzuk planteatzen direla kaleratze kasuak gertatuz gero, eta horrekin Udalak baduela aurreikuspen bat horrelako kasu baten aurrean.

#### Santamaria jn

Gogorarazi du antzeko beste kasu batzuk ere izan direla, eta Udalak orduan ere zegozkion neurrik hartu zituela (hainbat desjabetze kasutan, eta abar).

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Beraz Alkateak proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak alderedi guztien artean adostutako proposamenari aztertzeari egin dio.

## **.- Kriariena urkako plana martxan jartzeko adostutako proposamena**

### Proposamena

1. Udalaren krisiaren kontrako Plana eguneratzea.
2. Hiritarren Foroa abian jartzeko kudeaketa egitea. Foroaren helburua izango da egungo krisi egoerari aurre egiteko Udalak hartuko dituen neurrien osagarri izango den hausnarketarako, eztabaidarako eta lanerako gunea izatea. Halaber, kudeaketa eremu honetan parte hartze gunea izango da.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

**Alkate jaunak ondorioz, proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **12.- Eskaerak eta galderak**

Ez dago.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, idazkariak egiaztatzen dut.